



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

2017KO ABENDUAREN 21EAN TOKIKO GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILKURA

Etorri diren batzordekideak:

Mikel Agirrezabala Ezkurdia

Etorri diren zinegotziak:
Jesus Peñagarikano Labaka
Itziar Arratibel Imaz

Jon Mikel Iglesias Otegui
Eleuterio Sanchez Garcia

Idazkaria: Naia Ruiz de Eguino Garcia-Echave

Ibarran 2017ko abenduaren 21ean udaletxeko bilera-aretoan, goizeko hamaikak direnean Tokiko Gobernu batzarrak bilera egin zuen eta alboan adierazitako jaun-andreak elkartu ziren ohiko bilkura egiteko asmoz, horretarako deituta baitzeuden

Egintzaren buru Mikel Agirrezabala Ezkurdia alkatea izan zen eta bitarteko idazkari lanetan Naia Ruiz de Eguino

Udalburuak egintza ireki dela adierazi ondoren, bilkura honetarako ditugun gaiak aztertu eta eztabaidatu dira eta honako erabaki hauek hartu dira

LEHENA:

1.2017KO ABENDUAREN 1EKO AKTAREN ONARPENA

2017ko abenduaren 1ean eginiko Gobernu batzarraren akta irakurri ondoren, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

ERABAKIA

BAKARRA: Onartzea 2017ko abenduaren 1ean eginiko Gobernu Batzarraren akta



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

BIGARRENA:

2.-2017KO ABENDUAREN 20AN BURUTURIKO GIZARTE POLITIKAK, POLITIKA FEMINISTA ETA ANIZTASUN BATZORDEAREN INGURUAN HARTURIKO ERABAKIAK

2.1 KALE HEZITZAILEEN PROGRAMAREN ESLEIPENERAKO PLEGU ADMINISTRATIKBO ETA TEKNIKOEN ONARPENA

2018ko otsailaren 28an, indarrean dagoen kale hezitzaileen programa amaitutzat eman beharra dago. Zerbitzua ematea ezinbestekoa da honako arrazoiarengatik: 2008ko abenduaren 5eko Euskadiko Gizarte Zerbitzuen Legearen 42.6 artikulua diona kontutan izanik, udalei dagozkie indarrean dagoen araudiaren arabera haurrei eta nerabeei arreta eta babes ematearen arloan esleitzen dizkien eskumenak egikaritzea eta ondorioz, arrisku-egoeran dauden adingabeak babestu behar dituzte.

Udal honek ez du beharrezko giza nahiz material bitartekorik zerbitzu hori emateko, beraz, zerbitzuaren ezaugarriak kontuan izanda, prozedura egokiena, prozedura ireki bidez kanpoko enpresa bati esleitzea da, eskaintza ekonomiko hoberena eta hainbat esleipen-irizpide kontutan izanik.

2017ko abenduaren 20eko Gizarte Politikak, Politika Feminista eta Aniztasun Batzordearen irizpena kontutan izanik, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

ERABAKIA

LEHENA.- Onartzea Kale Hezitzaileen programaren esleipena egiteko plegu administratibo eta teknikoak (I Eraskinean jasoa)

BIGARRENA.- Pleguak argitaratzea Gizpuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Ibarra Udalaren web orrialdean.

2.2 TOLOSALDEA SAHARAREKIN ELKARTEARI DIRU-LAGUNTZA EMATEA

Tolosaldea Sahararekin elkarteak, azken bi-hiru urtetan jasotako material guztia saharar errefuxiatu kanpamenduetara eraman ahal izateko 6.500 euroko laguntza ekonomikoa eskatzen du. Laguntza ekonomiko horretan, kamioi frigorifiko baten erosketaz gain, kamioia hemendik errefuxiatuen kanpamenduraino garraiatzeak suposatzen dituen gastuak ordaintzeko dirua eskatzen da.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

2017ko abenduaren 20eko Gizarte Politikak, Politika Feminista eta Aniztasun Batzordearen irizpena kontutan izanik, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

ERABAKIA

LEHENA.- Onartzea Tolosaldea Sahararekin elkarteari 3000 euroko diru ekarpena egitea

BIGARRENA.- Ordainketa 490.230.20.01 partidatik egingo da eta Tolosaldea Saharekin elkartearen kontu zenbakian egingo da .

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri eman kontuhartzailletza sailari eta Tolosaldea Sahararekin.

I- ERANSKINA

**IBARRAKO UDALERRIAN ARRISKU EGOERAN DAUDEN GAZTE ETA
ADINGABEKOENTZAT INGURUNE IREKIAN GIZARTE HEZIKETA ZERBITZUA**

**-BALDINTZA EKONOMIKO-ADMINISTRATIBOEN PLEGUA-
- Prozedura irekia -**

**SERVICIO DE INTERVENCION SOCIOEDUCATIVA EN MEDIO ABIERTO CON JOVENES Y
MENORES EN SITUACION DE RIESGO EN EL MUNICIPIO DE IBARRA**

**- PLIEGO DE CONDICIONES ECONÓMICO-ADMINISTRATIVAS –
- Procedimiento abierto -**

ARLO SUSTATZAILEA/ ÁREA PROMOTORA: GIZARTE ZERBITZUAK / SERVICIOS SOCIALES

EXPEDIENTE KODEA/ CÓDIGO EXPEDIENTE: 2017KAPI0007

*KONTRATUAREN XEDEA:

* OBJETO DEL CONTRATO:

**IBARRAKO UDALERRIAN ARRISKU
EGOERAN DAUDEN GAZTE ETA**

**CONTRATACIÓN DEL SERVICIO
INTERVENCION SOCIOEDUCATIVA 1**